

254

XAVIER'TAR PRANTZISKO DEUNA goraltzeko izkintz-aldia

*Goñi ta Urrutia'r Luis jauna Iru-
ñeko Eliz-nagusiaren Kanonigoak
Elizondo'n 1922ko Buruillaren 28an
egiña, Sainduaren gorpuzki onetsi,
besoa ta gurutzea, Baztanara agur-
tzeko eraman zituztenean Elizak
deuntzatu zueneko irureun urtebe-
tetzear egin ziran bestetan.*

IRUÑA'N 1923-garren urtean
"Acción Social-ko," irarrkintza'n

7

R-3051

N. 2940
L. 34892

ATV
17.187

XAVIER'TAR PRANTZISKO DEUNA goraltzeko izkintz-aldia

Goñi ta Urrutia'r Luis jauna Iruñeko Eliz-nagusiaren Kanonigoak Elizondo'n 1922ko Buruillaren 28an egiña, Sainduaren gorpuzki onetsi, besoa ta gurutzea, Baztanara agurtzeko eraman zituztenean Elizak deuntzatu zueneko irureun urtebetetzean egin ziran bestetan.

**IRUÑA'N 1923-garren urtean
"Acción Social-ko," irarrkintza'n**



NIHIL OBSTAT

Dr. Josephus Iguerategui

Canónicus, Censor

IMPRIMATUR

Dr. Emmanuel Limon Castro

Gubernator Ecclesiasticus S. P.

De mandato Illmi. Domini mei

Lic. Aloysius Irurzun

Pro. Scio.

BAZTAN-GO APEZ LAGUN MAITE-MAITERI

Izkintz au adirazten abiatzeko asmorik ez nuan izan beiñere, eta nere gogoz be-ñepein egundaño ez zuan argia ikusiko: bañan adiskide on zembaiti bein ta berriz ezetz erantzuten losatzen baintzan, bort-laz bedere eta ezin bestean eman izan dut azkenik argitaltzeko baimena.

Egia da orrialde guziak asmentatik azkeneraño irakurritu ta ez duzuela deus arrigarririk ikusiko.

Ala ere, Xavier'tar Prantzisko Deuna-ren izena goraiatzeko asnoan Elizondo'n eta Aspilkueta'n egin ziñuzten besta ede-rren oroipena iraun erazteko bedere ongi eldu bazaitzue, onekin bakarrik pozik gel-dituko naiz.

Nola nai dela, ezin atzendu naiz nere guratsoak sortutako Euskalerriko toki men-ditsu zoragarri ortan aimbertze urte zuen artean igaro ditutela: eta neretako gañera lagun on eta adiskide prestuak izan zine-telako denak, eskartasun osoaren agiri bat eman naian, guzieri gogotik eskaintzen dizkitzuet nere idazti unen lagur-lerroak.

¿Eskaintza onek gutxi balio duela? Zi-ñez. ala da; eskaintza au ordea egitera beartzen nauen maitasuna aundia da, ez-titsua, arras biotzekoa.

Aski duzue bada ez eskaintza berari baizik eskaintzalearen maitasunari begi-ratzea.

Agur lagun maiteak, barkatu nere au-sardia, eta Xavier'tar Prantzisko Deunak lagundu dizuela.

EGILEAK.



“¡Quam spetiosi pedes evangelizantium pacem,
evangelizantium bona!,,

(Isaias

Gotzai jaun argitsuak: (1) apez lagun mai-
teak: agintari prestuak: baztandar zintzoak: ga-
ñerako kristau biotzekoak:

¡Zorioneko orduan gogoratu zitzaitzuen al-
darean ikusten degun beso onetsi ori Baztanara
ekartzea; eta gogoamen eder au lenengoz izan
zuenari pozik ematen diot nere biotzeko agur zi-
ñezkoa: Elizak izan dituen deun guztietan aun-
dienetatik bat; Españako gizon aipatuen artean
aipatuenetakoa; Naparrako semerik bikañena,
Xavier'tar Prantzisko gure erritar maitagarria-
ren beso onetsi baita or aitzinean duguna.

¡Oh Baztango mendi maiteak! ¡Nola ez zi-
neten makurtu, nola ez zerate dardarañu, nola ez
duzue egin atsegintasuneko irri gozoa beso maite
ori zuen ondotik igarotzean!

¡Ez zineten, nik uste, ssilik egoin, solasa egi-

1 Mugika'tar Mateo eta Baztan'dar Prantzisko jaurak, Got-
zai jakintsu ta bikañak, lenengoa Osmakoa, eta bigarrena Ovie-
dokoa izana.

teko gauza izan ta, baizik agurrezko deadar azkarrak egingo zinuzten orduan poztasunez be-teak!

¡Baztandar maiteak! Naparrako semea ta euskaldunen umea naiz sortzez: Xavier'tar Prantziskoren erritarra gerostik: Elizak berriz bere laguntzale gizontako egun batez autatu ninduelako, apeza; eta orrengatik Prantzisko Deunaren anaia.

Naparrako semea naizen aldetik, goraldu nezake orain Prantzisko, berriztatuz gogotik gure erritar gizon argitsuen izkuntza ederrak, gure idazlari jakintsuen erabaki zuzenak, gure musikalari aundien eresintasun bikañak, gure bersolari aundien adiak: baita ere, gure ugalden atsots gozoak, gure mendi maitien aize burumbiloak, gure oianelako txori ta zozoen aboska biurriak: denak beren gisera, ¿zertaz ez? Prantzisko Deunari eginen liokete gogotik agurra.

Bañan erran datzuet apeza naizela gañera, gurutzean guztiok zerurazteko iltzenaren ordezkoa: eta naiz badakiten Naparrari aunitz zor diotela bere odolako txorta bat egun batez nere gorputzeko zañetan ipiñi zuelako, ezin atzendu naiz zor aundiagoa badiotela oraindik egunero aldarean, berak gurutzean itsuritako odol ederraren bitartez, azkartzen duenari nere anima.

Ez arritu bada, Jaungoikoaren izenean minzaten den leku untara iganik, itz egiten badut, ez olerkari baten gisan, baizik Kristoren ordezkoa bezala.

Izkintztoki deun untatik begiratu ta, ez det Naparra bakarrik ikusten, ez: ikusten det mundu zabal guzia; eta mundu zabal ortan ez ditut

ezagutzen erri, mota, eta muga bereziak. Emendik begiratu ta, ez dire nabarmentzen, ez ziñesgabea ez judutar, ez krisaia, ez zuri, ez beltz, ez nagusi, ez menpekoa, ez aberats, ez beartsua, ez bizkorra, ez gaixoa: denak dirade berdiñak. Emendi begiratu ta, ikusten det mundu zabal orren erdian, mendi bateko tontorrean, Kristo gurutziltzatua, eta aren inguru, iñor beretsi gabe, bere odol ederrarekin erosi guziak.

Eta naiz gurutze orren inguru izkuntza arras destberdiñetan elkarren artean minzaten diren jendeak, denein erdian ordea, gurutzetik Kristok oyu bat, deadar bat bakarra edatzen du alde guzietara; maitasunezko oyua, barkaziozko deadarrara. Bada oyu ori, deadar ori iduki zuen beti Prantzisko Deunak bere begarrietan; eta margolariak bertze Deun miragarri Prantzisko Asiskoa agertzen badute beren margoean, munduaren iduri bat oiñpean duela, besoak Kristo gurutziltzatuari edatuz besarkan lo'ua, gurutze ortatik ikusten det artu zuela Prantzisko Xaviertarrak Jaungoikoaren ganako maitetasun berotsua eta gizonen animak zerurátzeko egarri aundi ura.

Au da itzaldi lagurraikin gaur goizean nik adiazi nai dutena.

Bañan lenik eskatu bear diozue nerekin batean Ama Virgiñaren bitartez Jaungoikoari laguntza.

AGUR MARIA.

¡*Quam spetiosi pedes, etc.* (ut supra).

Eritasun azkar batetik sendatu zanean, iltzeko arriskuan egon ta ondoan, gizon prestu ta kristau jakintsu bat, Le Play izena zuenak, gald egin zioten bere adiskide zembait: «¿Ill urrena ziñaudenean, zure gogoamen garaiena zeñ izan zan?»

Eta gizon argitsu ark era untan erantzun zuan: «Eriotzaren atetan ez zizaiten gogora etorri bizitzaren deusereza, baizikan aren balio aundia».

¡Bizitzaren balioa!... ¡Ongi ezagutu bear liteken gauza da!

Begira baztandarrak, gure Ziñeskintz edo Erligioa mundu guzian zabaltzen asi zanean, Erromako Jatorki edo Cirkoan zer gertatzen zan.

Kristauen odolarekin zikindutako leku ura maiz jende tzarrez betea egoten zan. An zagon gañeko aldian denen lenenburu, Neron, gizon arroa, ankerra, odol'tza'ea, bere aitzinean denak makurtu ta ikusi nai zituenak: an zagon bere jarralkian, begitarte txarraikin jendeak ikaratu nai zituela

¡Arendako bizitza zer zan?... ¡Arrokeria!

An zauden Neronen inguru gizon zakarrek, lizunkoiak, jan edan geie'giko'akin lertu urrenak, arrizko biotzekoak, kristauen odola lurrera purrustaka zariola ikusi ta ¡madarikatua! poztutzen zirenak.

¡Aiendako bizitza zer zan?... ¡Gorputzeko atsegin zikiñak!

An zauden mazteki batzuek zorigaiztokoak, buru ariñak, ergelak; beren begiratze, solas, ibilairio, apaingarri, urringai usaintsu, janzigeiegi, denak ematen zuzten ezagutzera beren lotsa-gabekeria.

¡Aiendako bizitza zen utsakeri ta aundike-
ria!

Jatorkiaren erdian berriz, beitiko aldian, ikusten ziran mutil neskatx gazte batzuek, onak, garbiak, zuzenak, iñoiri beiñere makurrik egin ez ziotenak: an zauden gaissoak erdi bulusiak, belaunikatuak, besoak bularrain gañean gurutzatu ta, begiak zeru aldera begira. Kaiola batean prestatuak zauzketen leoi zembait amorratu goseak; eta kaiolatik aterazten zituztenean kam-pora, jende tzar aiek beren oyu zalapartekin zirikatu ta, eroriazten zituzten gazte gaissoen gañera, aien gorputzak puskatu eta zatitu arteo beren atzaparretan.

Gazte maitagarri aiek ziran kristau zinzoak, Kristo egiazko Jaungoikotako aitortu ta, beren ziñismena ukatu baño lenago bizia gogotik eman nai izan zutena.

¡Aien bizitza zen Kristo Jaungoikoa!

Jatorki artako paretak lurrera aspaldion erori ziran: leku zorigai toko ura desegiña da: Erroman orain ez dire ikusten alako itsuskeriak.

Bañan erran daiteke leku ura beza'ako fran-ko mundi zabalaren baztarretan badirela, eta jende tzar aien antzekoak izanez, aunitzek beren bizitza arrokeri, utsakeri ta urdakerian ondartzen dutenak.

Orain bada nik galde egiten datznet: ¿Non,

kristauak, non ikasiko ote dugu gure bizitza zertarako dan?

¡Kristoren gurutze ondoan! ¡Ortik kampo iñon ez!

Orrengatik ziñestasan egiazkorik ez duenak, atsegin tzarrez ase ondoan aspertu ta, Lord Byron, olerkari biurri aren gisan, ertera beartuko da: « ¡Madarikatua, edozeiñ dela, neri bizia eman dautena; nere miñ ta kaltetako besterik ez baita! »

¡Ah kristauak! ¡Ez da gizonaren bizitza besta luze bat, zarralakeri bat, atseginezko amets itsusi bat, ez: kalbarioko mendian odolarekin idazi zuen Kristok gizonaren bizitza opa bat, buru ukatze bat dala: eta gurutze orren ondoan ikasi zuen Prantzisko Xaviertarrak bere bizpidea zer bezatu izan.

Ilunabar batzuetan, goibel itzaltsu ta ilun zembait mendi tontorretan irristatzen dira, eta iduzkiak bere argiarekin jotzen dituen bertan, goibel itzaltsu ta ilun aiek dirditasunez betetzen dire bat-batean.

Una emen Xavier'tar Prantzisko Deunarekin gertatutako iduri bat.

Ilundua zagon goibel beltz bat bezala aren anima etsai zirikatzeak nasten baizuen eskaiñiz munduko atsegin guziak: bañan Ignacio Deunaren agotik aditu zuen bezin laster erabaki zuzen ura: « Prantzisko, ¿zer balio zaio gizonari beretako irabaztea mundu guzia, azkenik betiko galtzen badu bere anima? »; ¡ah orduan! altxatu zituen gurutz aldera begiak, eta odol ura, bilustasun ura, beartasun ura ikusi ta, bere oñetan tximista bat lertu izan bazen bezala, iduzki

eder artatik eldu zen argitasunarekin, gelditu zen itxutua, eta Jaungoiko eta gizonen animen ganako maitetasunean arras berotua.

Parisko Eliza batean, Ama Virgiña zerura igan-tzeneko besta bateko goizean, bildu ziren sei gazte zuzenak, aingeru iduriak, apezten soñeko beltzaikin jantziak, beren zain edo mastru gizon prestu bat zutela. Gizon prestu ura zan Ignazio Loyolakoa, eta sei gazte aietatik bat Prantzisko Xaviertarra. Aldarean zauketen Ama Virgiña Doloretakoen itxura, eta aren ondoan gurutze bat. Belaunikatu ziren sei gazteak, Kristoren ganako maitetasunean arras berotuak, eta aitortako Ignazio zutela, egin ziozten Jaungoikoari beren eskañitz edo botuak.

Eliz artatik ateratu zen Naparrako seme aundi ura, Sinaingo menditik Moises jautsi zen bezala, sugarrak bere biotzetik botatzen zituela, eta Paulo Deunaren gisan erran zezaken orduan : «Gurutziltzatua nago Kristorekin batean, eta ez dut bertzerik nai baizik Kristok nai duena».

¿Ta zer zan Kristok orduan naizuenan Prantziskok egin bearra ?

Begira baztandarrak Misiolari bat zer dan. Salbatzalea minzaten zaio gizon bati erranaz : «Zoaz, nere maitea, zoaz mundu guziaren barna, ta erakusdiezu gizoneri denak zerurazteagatik eman izan nuela nere bizia. Ikusten nauzu beartsua, bulusia, eta gurutze batean josia : bañan ala ere ez zaitela lotsatu nitaz. Negar bidetan ibilli bearra izain zera, ni ere ala ibilli nizan : bañan ez izitu, zoaz beti aurrera. Jakinerazi bear diezu deneri zeruko bidea nekosoia

dela, eta zeruratu nai dutenak, munduko atsegiñak oinpetu bear dituztela».

¡Kristauak! ¡Mintzoera au beldurgarria da!

¡Gizon bat igorri lurralde guziaren barna!...

¡elsaitasun berzerik ez ikusteko alde guztietan!...

¡beti iltzeko arriskuan!... ¡bere lanen saritako eskergabekeria, ta bear bada eriotza emanen diotela jakin ta!... Gizona berriz ain berekoia delaik berez, ¡eskatu, bere gauzetaz atzendu, leku arrotzetara joan ta, jende basatieikin adiskidatu daie-la, ta aiek laguntzen iñala egin dezala!... ¡eia lan ta neke oietan ipiñi bear, ez bakarrik bere biotza, baizikan bere zoriontasun guzia!... ¡Ah baztandarrak! ¡Au ez zan ikusi, ez zan aditu sekulan!

Au da bada Misiolaria. Gizon baten biotzean sartzen da maitasunezko tximista bat; zeruko oyu bat aditzen du bere begarrietan; Jaungoikozko argitasunarekin ikusten ditu aimbertze gizon ziñesgabeko iluntasun-pean bizi direla; eta gizon orren dako ez da gogo au, naia au bai-zik, gizon gaisso oiek guziak nola zeruko bidean sarratziko dituan.

Bada tximista ori, gar ori Jaungoikoak gizon miragarri baten biotzean piztu zuan; eta gizon ori ¿nor da?; España eta Naparrako izenak bizitoki guztietan ospatu zituenak, gure erriko goibururu, zorioneko misiolari, Prantzisko Xaviertarra.

¿Nola adiazi ongi nik orain misiolari aundi orren lan arrigarriak?

Ez dut ausardirik aski Prantzisko goraltzeko idazi diren liburu ederretatik itz bat bakarra be-

resteko. ¡Daudela liburutegian autzarekin nasiak!

Aietan irakurriko ditu naiduenak, Italiako karriketan, Afrikako kaialdetan, Japongo jakitun-batzarretan egin zuan guzia: aietan irakurriko ditu bere ibilairioak, nekeak, goseak, eman ziozten zigorkadak, igaro zituen arriskoak: aietan irakurriko ditu zembat jende basati, zembat erri ziñesgabe, zembat aur bakarñadean utziak, lenik ongi eskolatu, ta gero Kristoren gana biurtu zituan.

Ez, ez dut liburu oietatik itz bat beretsi nai.

Liburu bat bakarra edekitzen det nik orain, gurutzearen liburua; eta liburu eder ortatik artuko det itz bat; Jaungoiko Guzialdunaren itza delako, gain-gañekoa.

Il urrena zagonean Jesukristo, bere agoa erdidiki ta, mintzatu zen era untan: «Egarria daukat». Itz onekin ematen zuen ezagutzera, eriotzak berak, bere odol, samintasun, ta naigabe guziarekin, ez zela aski biotzean zauken animen ganako maitetasuna asetzeko.

Itz orrek berdin, deus bañan obeki, adiazten du Xavier'tar Prantziskoren animen ganako egarria; bada Kristoren gana munduko gizon beltz guziak biurtu naizik, nekatua, ondatua, ler egiña, lurrean belaunikatu ta, denein onerako otoitz egiten zuan demboran gauako issiltasunean, bere agotik ateratzen zuan itz ori bera: «Animen egarri aundia daukat, jauna».

Itz ori, oyu ori nabaitzen da itxatson, oianetan, basartetan; eta bere gañan zituelaik mendi aundi bat adineko lan eta nekeak, gizonik azkarrena porrokatzeko gisakoak, oraindik Prantzis-

kok, Txinara begira, itxas baztarrean elzan ta, iltzerakoan erten zuan: «Geiago, jauna, geiago oraindikan; nere egarria animena ase ez baita».

Nik ez dakit, baztandar maiteak, zer geiago erran.

Mintza zaite zeroi, Prantzisko maitea, zure itzak nereak baño irakiñagoak izango bai tira.

Bein toki batean sartzera utzi nai ez ziotenean bere adiskide zembait, iltzeko arriskuan jartzen zelako, aditu zer erantzun zuan: «¿Ilko nautela, diozue? ¿Ta neri zer zait? Jende basati oiek Kristoren dako irabazteagatik nere bizia eman ta, indar geiago eginendu, nik uste, nere agoko oyuak baño, nere odolaiña; bada Elizaren asmentatik garbiki ezagutu dute denak, obeagoa zela beti azia, misiolarien kopetako izardiaikin baño, aien odolarekin bustitakoa».

¡Baztandar maiteak! ¿deus ederragokorik erran daiteke au aditu ta?

Ez: ta orrekin akitu nai det nere itzkintzaldia.

* * *

Iruñan ganden igandean, ta orain emen ikusten duten edertasunak, poztasunez betetzen du nerebiotza, ta nere begietatik nigar tantak jautsi nai dute mazeletara.

Iruñera Naparrako alde guztietatik etorri bai ziran, orain berriz Euskalerriko toki menditsu zoragarri untan bildu gera guztiok Naparrak izan duen semerik bikañenaren izena goraiatzeko asmoan.

¡Baztandarrak! Naiz Prantzisko Deuna, bere gaintasunagatik, mundu guzikoa den, Napa-

rrako lurrean jaio zelako, gurea geiago da; bada biotzeko maitetasuna odola bera dutenen gana biurtzen danean, anaien arteko naikuna azkarra, sendoa ta eztitsua izaten baita, orrelakoa da Prantzisko maiteari guziok dioguna.

¡Oh Naparra maitea! ¡Pozlutzen naiz egiaz zuk emandako odola baitut nere gorpuz barnean! ¡Zembat gizon izen aundikoa izan dituzu zure ume prestuetan!

Una emen bertze aunitzen artean, Pedro Navarro, bere azkartasunarekin, guduztatu ondoan, Oranen nausitu la jabetu zena: Lasterra, Jerusalemene gure Ziñeskintzaren etsaiak porrokatuta, orain Artajonan agurtzen duten Ama Virgiñaren itxura Godofredoin eskuetatik sari edertako artu zuena: Sancho azkarrak, Errege Moro beltzaren estalpea inguratzen zuzten kate burnizkoak puskatu zituenak: Azpilkuetako Martin, zeñendako, Erroman Penitenziariko batzarrera joaten ez bazen noizbait, bere lagun batek erten zuan: «Buru gabeko bilgura izan dugu gaur»: Estellako Fray Diego, gizon argitsuen artean arras aipatua, jakinduriz beteak liburu ederrak idazi zituenak: Villoslada, Naparrako Walter Scott deitzen zutena: Bertze gisera Sarasate, bere xiribikako soñueikin jendeak arritu zituenak: Gayarre, bere zintzuruko aboska azkarra mundu guzian adiazi zuena: Eslava apeza, musikariaren artean arras goraldua: Oiek guziak baño geiago Fermin, Iruñeko Gotzai Doatsua, aimbertze Iruñeko seme Kristoren dako eskolatu zituenak.

Bañan denen buru, denen gañan, Prantzisko

Xaviertarra: olakorik izan ez da: bera bakarrik aski baita betiko goraltzeko erri bat.

Ez atzendu bada, baztandarrak, Prantzisko sortutako lur bedeinkatu untan jaio ziñetela, eta aren odola bera duzuela zuen zañetan.

Gogoan artu ongi lenagoko naparro zintzo, gure aitzinekoak, Prantziskoren erritarrak, bioztun eta azkarrak izanez, gure Ziñeskintz eta Naparrako etsaieri gogor egiñez, ez zuztela menperatu sekulan. Lenagoko naparroak Jaungoikoari bertzerik ez zioten beren burua makurtu, eta Guzialdunaren dako bakarrik izan zuten beldurra.

¿Oraingo naparroak ez ote gera alakoak izain? ¿Zertaz ez? ¿etsai aunitz gure inguru ikusten ditugulakotz?

Aski dugu erne egotea; eta gure aitzinekoak, Naparra zaintzeko izaten zuzten guduetan, etsaiak ikusi ordoko menditik mendira elkarri adiazten zioten bezala *irrintzika*, ala orain, gure erriko oitura ederrak gaiztaraztera urbiltzen bada gizon biurri-gaiztoak, egin dezagun *irrintzi* luze bat, Naparra guzia oartzeko gisan, alderazteko ta ondatzeko emendik gure erriko etsai gaizto guziak.

¡Baztandarrak! Gure Ziñeskintza, Eliza, España eta Naparra zaintzeko asmoan, ¡aurrera! ¡beti aurrera!

Eta azkenekotz, Kristoren adiskide aundi arren beso onetsi aitzinean dugula, gogoamen au burura etortzen zait: ¡beso eder orrek minzatzzen balaki, zer gauz onak adituko ginituen orain!

¡Oh beso maitea, Kristoren besoaren antzekoa! ¡Zembat aldiz eskuaikin estutu zinuan zure

ondoan aldare ortan dagon gurutzea, bein itxasoan galdu ta, karramar batek miragárrizko moduz zure gana itzulia! Jaungoikoaren erriko lenburu Moisés, zigor batekin arri idorra jo ta, emanazi bazion ur gozoa, ¡zembat aldiz zuk, gurutze ori agerian ziñuela, izkintz-aldiaren zigorraikin kolpatu dituzu jende tzarren biotz gogorrak, ta ateratu diezu bekatuen aitormena eta damua!

¡Oh beso maitea!; iñor madarikatzeko ez zara goratu sekulan; bañan adiskide ta etsai bedeinkatzeko, ¡zembat aldiz edatu ziñan!

¿Ta ez gaituzu bedeinkatuko guziok orain?

Bai; bedeinkatzitu Gotzai jaun argitsu ta on oiek: bedeinkatzitu nere apez lagun maiteak: bedeinkatzitu agintari prestuak: bedeinkatzitu baztandarrak, naparroak, ta emen dauden guziak.

Ta azkenik, besoa ta gurutzea aldarean ikusi ta, denen izenean igortzen diot orain emendik besoari besarka gozo bat: gurutzen dako berriz, (ori ez bada, ori iduria izain da) oraitik altxatuko dugu musu bat, eriotzako orduan emanen dioguna, ez gezurrezkoa Judasena bezalakoa, bai'zik zintzoa, eztitsua, Prantzisko Deunak ematen zionarer gisakoa: ark bezala uzteko gero gure bizia betiko zoriontasunean Jaungoikoaren eskuetan

ALA IZAN DEDILLA.



